

GAZTE-KEMENA ABESBATZA 10. URTEMUGA: KANTATUZ GOZATZEN DENEAN...

Gazte-Kemena

Gauzak zer diren! Gezurra dirudi hamarkada bat pasatua dela Orereta Okastolako gazte talde batek Ereintza elkarteak urtero antolatzen duen gabonkanten lehiaketan lehenengoz parte hartu zuenetik... Harrezkero, urtero-urtero parte hartu izan dugu lehiaketa honetan, batere hutsik egin gabe; eta hala jarraitzeko asmotan gara, etorkizunari itxaropentsu begira jarririk... Baina goazen istorioaren hastapenetara.

Xabier Vesga herrikidea 17 urteko nerabe gaztea genuen. Aspaldidanik zetorkion

musika eta kantuarekiko zaletasuna; urteen buruan Ereintza elkarteko txistu eta dantza sailetan landua. Bera, partaide bat gehiago zen Josetxo Olveri bere osabak gidatzen zuen gabonetako ohiko errondan ikastolako talde txiki batekin batera; helduekin egiten zuten herriko jiran. Taldetxo horrekin zer-bait gehiago egiteko gogoia eta nahia handitzen joan zitzaion eta bere osabak eztenkatu zuen ahalik eta harra barruraino sartu zitzaion arte.

Xabierrek hasieratik zeukan argi zer nahi zuen eta talde sendoago baten bila abiatu



2002-12-28



Argazkia: Arizmendi

zen; kopuruz politagoa izango zena. Horretarako, bere betiko koadrilara, Ereintzara eta ikastolako adiskideengana jo zuen eta 40 pertsona inguruko taldea batzea lortu zuen.

Lehen urteetako helburuak xumeak ziren; ikasten genituen kantuak modu txukunean jendearen aurrean agertaraztea, adibidez. Baina pixkanaka Xabierrek bere burua musikalki formatzeko beharra sentitu

zuen, Oinarri abesbatzaren kargu ere egina baitzen.

Urteek aurrera egin zuten eta Gaztekemena abesbatzaren ohiartzuna herri mailan handiagotu zen. Hala, jende kopuru finko batekin kontaktzen du gaur egun gure abesbatzak, 50 pertsona inguruan mugitzen dena. Urtero izaten da aurpegi berriren bat baina, oro har, gehienok beti berberak gara. Urriarekin batera hasten gara gure entsegu-



Argazkia: Arizmendi

tan eta abendurarte jo ta ke ibiltzen gara kantari, larunbat aratsaldeetan Andra Mari abesbatzaren egoitza erosoan elkartu ohi garelarik. Egun, Andra Mari eta Oinarri abesbatzetako gazteek gurekin abesten dute eta guztiz beharrezko dugun kalitate puntu hori lortzen laguntzen digute.

Baina dena ez da entsegua eta lana izango. Urriko lehen edo bigarren entseguaren ostean afari mundiala antolatzen dugu partaide guztiak goxoki ingura gaitezen. Eta zer esanik ez; gabon-abestien lehiaketaren egunean, guretzako egun handian; afari hori bera oraindik eta giro hobean errepikatzen dugu, gure baserritar jantzi eta guzti. Gure abesbatzaren dohainetako bat da hori: kultura eta alaitasunaren arteko uztarketa.

Gazte-kemena, azken finean, gure herriaren islada bat besterik ez da. Orereta-Erreterian betidanik egon izan da abesteko halako pasio berezi bat eta, zentzu horretan, emaitzak hor daude: ez da batere erraza urtero 50 pertsonako jende andana mobilizatzea baina batez ere urte hauetan guztietan punta-puntako sailkapenak lortu izan ditugu; 2. postua 3 aldiz eta lehenego lau onenen artean askotan eginez. Ez da ibilbide makala...

Eta hitz gutxitan, hauxe da gure historia xumea. Aurten, 10. Urtemuga dela eta, zerbait berezia egitekotan gara gabon-abestien lehiaketan baina oraindik zehazteke daukagu. Beraz, aldarte ona eta kanturako grinaren jabe bazara, badakizu nora jo...

Doinua: Habanera (X. Lete)

Ilusioa borboka
geneukan
hastapenetan
ametsa egi bihurtu
da ondorengo
honetan.

Gure kultur jarduera
Ez da inoren kaltetan
gustora mugitzen
gara
gabonetako
festetan...

Kantua suertatzen
denez
nagusi gure
ezpainetan
giro jatorraren
maizter
suertatuaz
gehienetan
alai aurkitzen
garenez
urteurren bezperetan
hala jarritu dezagun
beste hainbeste
urtetan

